



2022-04-01

2022KO IV. ARTISTA-LIBURUEN DONOSTIA SARIA

Donostiako VII. Artista-liburuari buruzko Topaketaren baitan antolatuta da lehiaketa hau.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1. LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO LAN GUZTIEN ERAKUSKETA BAT EGINGO DA, 2022ko azaroaren 4tik 6ra, Donostian, San Telmo Museoko elizan.**
- Erakusketa pertsona ororentzat egongo da zabalik, eta doakoa izango da. Ordutegia honako hau izango da:
Azaroak 4, ostirala: 16:00 - 20:00 h
Azaroak 5, larunbata: 10:00 - 20:00 h
Azaroak 6, igandea: 10:00 - 13:30 h
- arteliburu21ek sari hauek banatuko ditu:
-Lehen saria duen lanari: 1.000 euro inguru (izen-emateen ondorioz bildutako zenbatekoaren arabera: zenbat eta izen-emate gehiago, orduan eta sari handiagoak, eta alderantziz).
-Bigarren saria duen lanari: 500 € (aurreko puntuan zehaztutako irizpide berberarekin).
-Epaimahaiak hala erabakiz gero, diploma bat jasoko du hirugarren saria duen lanak, accesit moduan.
- Izena ematerakoan 30 €-ko kuota ordainduko da (deialdi ofizialean zehaztuko da izena emateko epea). Partaide batek baja ematen badu lehiaketan, ez du eskubiderik izango izena ematean ordaindutakoa itzultzeko, edozein direla ere haren arrazoi pertsonalak.

5. Gaia librea da. Hala ere, puntu gehiago jasoko dituzte, eta, beraz, saria jasotzeko aukera gehiago, sare sozialak eta hedabideak pozoitzen dituen desinformazioaren gaitzespena satira bidez ondoen adierazten duten lanek.
6. Hautazkoa da testu idatzia erabiltzea, baina hura ezin da izan 160 hitz baino gehiagokoa.
7. Lanak material birziklatuz edo egileak sortutako materialez egingo dira zati handiengan edo osorik.
8. Edozein artista-liburu mota egin daiteke, salbuespenik gabe. Gehienez 30 cm izango dute alde guztiek. Destolestean diren liburuak aurkeztu daitezke, baina erdi itxita edo tolestuta aurkeztuko dira, aipatutako neurriak gainditu gabe.
9. Bazter utziko dira giza eskubideen eta genero-berdintasunaren aurka egiten duten lanak. Osasunerako nahiz ingurumenerako arriskutsuak diren lanak eta usteldu daitezkeenak ere ez dira onartuko.
10. Erakusketaren antolatzaileek ez dute aurkezten diren lanen ardurua hartuko; ez dituzte ez jasoko, ez ikusgai jarriko. Artista bakoitzak bere lanak jarriko ditu eta haien ardurua hartuko du, baita jaso ere, erakusketa amaitutakoan (badago aukera beste pertsona baten esku uzteko). Puntu honetan adierazten dena ezinbesteko baldintza da lehiaketan eta erakusketan parte hartzeko.
11. Lehiaketako parte-hartzea irekia da, eta ez zaio begiratuko pertsonen nazionalitateari. Adinez nagusi den pertsona orok parte har dezake (eta 18 urtetik beherakoek ere bai, ahaide heldu batek lagunduta), bakarka edo taldeka. Lan bat edo bi aurkez daitezke.
12. Egileek saritutako lanen jabe izaten jarraituko dute.
13. Sari ekonomikoek indarrean dagoen zerga-legeria betetzen dute, eta legez ezarritako atxikipenak ezarriko zaizkie.
14. Ibilbide artistiko eta kultural aitortua duten hiru pertsonak osatuko dute arteliburu²¹en sariketako epaimahaia.
15. Azaroaren 5ean, arratsaldean, egingo da SARI-BANAKETA, San Telmo Museoaren erakusketa-aretoan. Epaimahaiaren erabakiaren aurrean ezin da eskaerarik egin.
16. Lehiaketa saridunik gabe geldi liteke.
17. "Itsuan" aukeratuko dira lan saridunak. Horregatik, lehiatzen diren lanetan ezin da ageri ez sinadurarik, ez txartel erantsirik, epaimahaiaren erabakia jakin arte (larunbat arratsaldean).
18. Aukeratutako lanen egileek eskubidea ematen diote arteliburu²¹i haien lanen berri emateko, edozein dela ere horretarako bidea (katalogoak, bideoak, hedabideak eta erakusketak).
19. Deialdian parte hartzeko, guztiz onartu behar dira oinarri hauek.
20. Topaketak amaitutakoan, saiatuko gara doako katalogo digital bat editatzen, Donostia Sarira aurkeztutako lanak (egileek irudi egokiak bidaliz gero) eta San Telmon ikusgai jarritako gainerako lanak biltzen dituen. Halaber, saiatuko gara topaketetan antolatutako beste ekitaldi batzuen argazkiak ere katalogo horretan sartzen.

21. Urriaren 25a baino lehen, lehiaketarako sortu diren artista-liburuen irudiak bidali behar dira, posta elektronikoz, arteliburu21@gmail.com helbidera. Horrela, gure elkarteak denbora nahikoa izango du aurkeztutako lanen katalogo digitala diseinatu eta eratzeko. Aurrerago azalduko ditugu jarraibide zehatzagoak.

Aldez aurretik dohainik izena emateko FITXA. Derrigorrezkoa
arteliburu21.com gure web-orriaren bidez:

IV Premio Donostia de Libros de Artista 2022

Preinscripción (Obligatoria y gratuita) a los **IV Premio Donostia de Libros de Artista**. Tiene como única finalidad conocer el número de personas dispuestas, inicialmente, a participar.

Preinscripción obligatoria

2022ko IV. Artista-liburuen Donostia Saria
IV. Artista-liburuen Donostia Sarian izena ematea
(derrigorrezkoa eta doakoa). Helburu bakarra du: jakitea
hasiera batean zenbat lagunek dute asmoa parte hartzeko.

Derrigorrezko izen-ematea

2022ko maiatzaren 1 baino lehen

Aldez aurreko doako izen-emateak xede bakarra du: jakitea hasiera batean zenbat lagunek duten asmoa IV. Artista-liburuen Donostia Sarian parte hartzeko.

Izena emateko kuota (30 €) aurrerago ordainduko da, lehiaketaren deialdi ofiziala egiten denean.

Harremanetarako:
Luis Barrios / Eluska Kortajarena
arteliburu21@gmail.com
www.arteliburu21.com